

## 6. MAILA BUKATU DUT

*Iñaki Aldai*

*ialday@irakasle.net*

ADINA

6. maila egiteko egokia.

PERTSONAIK

. Kontalaria . Ama . Umea 3 . Ikaslea 4 . Ikaslea 8  
. Andereñoa . Jon . Ikaslea 1. Ikaslea 5 . Ikaslea 9  
. Irakaslea 1 . Umea 1 . Ikaslea 2. Ikaslea 6 . Ikaslea 10  
. Irakaslea 2 . Umea 2 . Ikaslea 3. Ikaslea 7 . Ikaslea 11

Ikasleen kopurua gutxitu daiteke -gutxienez 4- eta irakasle andereñoak ere behar izanez gero pertsona berdinak egin dezake.

Jon (kontalaria): Denbora arin pasatzen da. Aurten 6. maila bukatu eta eskolaz aldatu beharko dut.  
Ene... zenbat denbora eskola honetan, eta zenbat istorio...  
Nahi duzue eskolan bizitako istorio batzuk ikusi?  
Orduan has gaitezen hasieratik.  
Oraindik eskolara etorri nintzen lehenengo eguna gogoan dut. 3 urte besterik ez nituen

*(Hiru haur amantarekin jantzita eta andereño bat eskolako gelan daude. Haurrak beraien artean jolasean pozik daude. Jon bere amarekin irizten da eskolara)*

Andereñoa: Egun on Jon. Pozik zatoz zure lehenengo egunean eskolara?

Jon: Buaaaa... buaaa... (*negarrez hasten da*) Nik ez dut nahi eskolara etorri. Buaaa buaaa.

Andereñoa: Baina Jon, begira zenbat jostailu dauden gela honetan.

Jon: Buaaaa, nik amarekin nahi dut. (*Amari heltzen dio*).

Ama: Andereñoak oso ongi zainduko zaitu.

Jon: Buaaaa, nik zurekin nahi dut.

Ama: Ezinezkoa da. Errekadu batzuk egingo ditut eta gero nator zure bila. (*joan egiten da*)

Jon: Buaa, nik amarekin nahi dut.

Umea 1: Zergatik egiten duzu negar?

Jon: nire amarekin nahi dudalako...

Umea 2: ¿Estás triste?

Jon: Zer esan du?

Umea 3: Oraindik ez daki euskaraz. Ea triste zauden galdetu dizu.

Jon: Bai, triste.

Umea 2: *(poltsikotik txupete bat atera eta Joni ematen dio)*  
Toma para que no estés triste.  
*(Jonek txupetea hartu eta ahoan sartzen du).*

Umea 3: Baina triste, triste, oso oso oso triste zaude?

Jon: Bai, oso oso oso triste.

Umea 1: Ba ni ere, piskat triste jartzen hasi naiz.  
*(Negarrari eusten saiatzen da).*

Umea 3: Ni ere oso triste nago.

Umea 2: Y yo. Yo también estoy triste. Dame el chupete.

Jon: Zer?

Umea 2: *(Ahotik tirakada batez kentzen dio) Es nio.*

Umea 1+3+Jon : Buaaaa amakin nahi dut....

Umea 2: Buaaaa, quiero con mi maaaaa.

*(4 haurrak negarrez hasten dira).*

Andereñoa: Hau da marka. Jon lasaitu beharrean, orain guztiak negarrez daude. Gela hankaz gora jarri behar dit haur honek.

*(Armairutik kamioi bat ateratzen du)*

Begira zer dudan hemen. Nork nahi du kamioiarekin jolastu?

Umea 1: Nik, nik, ni, nik.

Umea 3: Nik, nik, ni, nik.

*(Haur biak, kamioia punta batetik heldu eta tiraka hasten dira).*

Umea 1+3: Nik nahi dut, nik nahi dut.

Andereñoa: Egon lasai. Hemen beste kamioi bat dut. Hala,  
bakoitzarentzako bat.  
Ea zer gehiago dudan... Han begira nolako panpin  
polita,

Jon: Nik nahi dut. Nik nahi dut.

Umea 2 : Para mi, para mi.

*(Bakoitza punta batetik tiraka hasten da. Eta azkenean Jonek  
umea 3jo egiten du).*

Umea 2: Buaaaa... Andereño, Jon me ha pegado.

Andereñoa: Jon, ez da jo behar. Eskatu iezaiozu barkamena.

Jon: Barkatzen didazu?

Umea 3: Eres un niño feo, tonto y malo.

Jon: Zer esan du?

Andereñoa: Zera..... Eee.. Barktazen dizula.  
Begira hemen beste panpin bat. Tori.

*(4 haurrak kamioi eta panpinekin elkarrekin jolasean hasten dira  
eta oso pozik dabilta. Irteteko ordua heltzean, Jonen ama  
agertzen da).*

Ama: Kaixo Jon. Eskolatik irteteko ordua heldu da. Goazen etxera.

Jon: Buaaaa. Nik eskolan gelditu nahi dut. Buaaa... nik andereñoarekin nahi dut... buaaaa...

Ama: Baina, baina... Nork ulertzen du ume hau?

Jon (kontalaria) : Ez zen ez neu ulertzea erreza.  
Eskolako unerik onenak, dudarik gabe jolasorduak ziren. Elakarrekin asko jolasten genuen, baina batzutan haserretu ere egiten ginen.

*(Neska mutil talde bat soka saltoan dabil).*

Umea 4+5+6+7: *(Umea 4 soka saltoan ari da. Besteak abesten)*  
Aita, ama, zenbat urtekin ezkonduko naiz? Txikia naiz eta ez dakit:  
1,2,3,4,5,6,7,8,9,10,11,12,13,14,15,16,17,18,19,20,21.

Umea 5: Orain niri tokatzen zait. Seguru salto gehiago egingo ditudala.

Umea 4+5+6+7: Aita, ama, zenbat urtekin ezkonduko naiz?  
Txikia naiz eta ez dakit: 1,2,3,4,5,6.

Umea 4: Ja, ja, ja. Nik baino salto gutxiago egin dituzu.

Umea 5: Zure errua izan da. Gaizki eman duzu soka.

Umea 4: Ongi eman dut.

Umea 5: Gaizki!

Umea 4: Ongi!

Umea 5: Gaizki!

Umea 4: Ongi!

Umea 5: Gaizki!

Umea 4: Ongi!

Umea 5: *(Soka hartzen du)* Ba orain, ez dizut sokarekin jolasten uzten.

Umea 4: *(Soka hartzen du baita ere)* Soka ez da zurea. Gelakoa da.

Umea 5: *(Sokako punta batetik tiraka hasten da)* Baina soka nik jaitsi dut patiora.

Umea 4: *(Sokako beste puntatik baita ere tiraka hasten da.)* Gelakoa da!

Umea 5: Nik jaitsi dut!

Umea 4: Gelakoa da!

Umea 5: Nik jaitsi dut!

Umea 4: Gelakoa da!

Umea 5: Nik jaitsi dut!

*(biak, duten indar guztiarekin ari dira sokatik tiraka)*

Umea 4: Hala ba, zuretzat soka.

*(Bat-batean soka soltatzen du eta umea 5 atzerantz erortzen da kolpea hartuz. Haserre, lurretik altxatu eta biak borrokan hasten dira irakasle bat azaltzen den arte).*

Irakaslea 1: *(Haur bakoitza belarri batetik heltzen du)* Ze arraio gertatzen da hemen?

Umea 4: Bera hasi da.

Umea 5: gezurra. Bera hasi da.

Umea 4: Bera!

Umea 5: Bera!

Umea 4: Bera!

Umea 5: Bera!

Irakaslea 1: Nahikoa da! Ez dago ondo borrokatzea. Eskatu barkamena elkarri.

Umea 4: Barkatu.

Umea 5: barkatu.

Irakaslea 1: Ongi da. Eta ez borrokatu gehiago. *(joan egiten da).*

Umea 4: Arrazoia du. Ez du pena merezi haserretzea.

Umea 5: Egia da. Ez dugu gehiago eztabaidatuko. Lagunak?

Umea 4: Lagunak. Eman besarkada bat.

*(Besarkatzen hasten direnean, hasieran bizkarrean kolpe suabeak ematen dizkiote elkarri, baina geroz eta gogorragoak bihurtzen dira).*

Umea 4: Horren gogor ematen badidazu muturrean emango dizut!

Umea 5: Zuk jo didazu gogorrago.

Umea 4: Ez. Zuk gogorrago!

Umea 5: Zuk gogorrago!

Umea 4: Zuk gogorrago!

Jon kontalaria: Askotan haserretzen ginen, baina baita berehala konpondu ere.  
Gela barruan denetarik bizi izan dugu, eta gure irakasleak batzutan desesperaturik bukatu dute

*(Eszenatokian eskolako 4 mahai eta aulki daude. Haurrak jolasean eta zarataka dihardute. Martin -ikaslea 8- atetik zeharka meharka begira dago).*

Martin: Badator!!! Andereñoa dator! *(arin arin, bakoitza bere mahaian eseri eta isil isilik gelditzen dira)*

Irakaslea 2: Egun on guztiori. Ene, hau ezustekoa. Guztiak formal eta isilik eserita. Horrela gustatzen zait.

Martin (ikaslea 8): Zuk esandakoa beti betetzen dugu.



Irakaslea 2: Ederki. Beno, badakizue gaur animala eta janariei buruzko kontrola daukagula. Baina aurretik, errepasso modura galderatxo batzuk egingo dizkizuet. Has gaitzen. Nondik lortzen dugu esnea?

*(haurrek eskua altxatzen dute)*

Ikaslea 8+9+10+11: Nik, nik, nik, nik.

Irakaslea: Elene.

Elene (ikaslea 9): Behiek esnea ematen digute.

Irakaslea 2: Oso ondo. Beste erantzunik?

Andrea (ikaslea 10): Ardiengandik ere esnea lor dezakegu .

Irakaslea 2: Primeran. Besterik?

Jokin (ikaslea 11): "Eroski"tik ere esnea lor dezakegu.

Irakaslea 2: Nola?

Ikaslea 11: Bai. Nire amarekin "Eroskira" joaten naizenean esnea hartzen dugu.

Irakaslea 2: Ez esan astakeriarik. Hurrengo galdera. Nork esango dit ilerik ez duen izaki bizidunen bat?

Ikaslea 8+9+10+11: Nik, nik, nik, nik.

Ikaslea 8: Marraskiloak. Beraien gorputza babesteko koskol bat erabiltzen dute.

Irakaslea 2: Bikain.

Ikaslea 9: Sugeek ere, ez dute ilerik. Larruazal sendoa dute babesteko.

Irakaslea 2: Oso Ongi Elene.

Ikaslea 11: Nire aitona.

Irakaslea 2: Ez Jokin, gizakiok ilea daukagu.

Ikaslea 2: Oker zabilta. Orain 10 urte nire aitonari ile guztia erori zitzaion. Orain aitona, burusoila da eta txapela erabiltzen du babesteko.

Irakaslea 2: Jokin, zoratu behar nauzu.  
Bukatzekeo buruketa errez bat. "Bazkaltzeko 4 arraultze frejitu daude. Zure arrebak 2 arraultze jaten baditu, zenbat arraultze jango dituzu zuk?"

Ikaslea 10: 2 arraultze.

Irakaslea 2: Oso ondo. Ados zaudete guztiok?

Ikaslea 11: Ez andereño. Ni ez.

Irakaslea 2: Oraingoan ere ez?

Ikaslea 11: Ez andereño. Nik 0 arraultze jango nituzke.

Irakaslea 2: Zure anaiak 2 jaten baditu, zuk beste biak jango dituzu.

Ikaslea 12: Ezetz ba. Ez nituzke jango. Niri ez zaizkit arraultzeak gustatzen.  
Izozkiak balira... orduan bai.

Irakaslea 2: Nahikoa da! Has gaitezen kontrolarekin.  
Orain isiltasun osoa nahi dut.  
Ah, eta ez kopiatu.

*(Kontrol orriak banatzen ditu eta bere aulkian esertzen da egunkaria irakurtzen).*

Ikaslea 11: *(Azpitik hitz eginez)* Elene, esan lehenengo erantzuna.

Ikaslea 9: Ssssh.

Ikaslea 11: Elene, Mesedez.

Ikaslea 9: Ssssh. *(ez dio kasurik egiten eta orduan ikaslea 11-k paperezko pilota bat jaurtitzen dio).*

Ikaslea 11: Ba ahal dakizu 2. erantzuna?

Ikaslea 9: Harrapatu egingo gaituela.

Irakaslea 2: Nor dabil hizketan?

Ikaslea 11: Eztula izan da. Katarroa daukat *(Disimulatuz eztulka hasten da).*

Irakaslea 2: Tira, denbora gutxi gelditzen zaizue. *(egunkaria irakurtzen jarraitzen du).*

Ikaslea 11 : Elene, Utzi azterketa kopiatzen.

Ikaslea 9 : Pelmati. Hartu eta kopiatu arin.

*(Orria mahaitik mahaira pasatzen dio. Ikaslea 11-k arin kopiatu eta azterketa bueltatzen dio)*

Irakaslea 2: Denbora bukatu da. Eman azterketak.

Oraintxe bertan zuzenduko ditut. (arin baten,  
*Kontrolak irakurtzen hasten da*)

Andrea oso ongi. *(irakurtzen jarraitzen du)*.

Martin oso ongi. *(irakurtzen jarraitzen du)*.

Elene oso ongi. *(irakurtzen jarraitzen du, baina bat-batean aurreko kontrola hartu eta konparatzen hasten da)*.

Jokin kopiatu egin duzu.

Ikaslea 11 : Ez andereño, ez.

Irakaslea 2: Nola ezetz? Erantzun guztiak hitzez hitz berdin berdinak dira eta.

Ikaslea 11: Andereño, Elene eta biok atzo elkarrekin egon ginen ikasten. Horregatik izango da dena berdina.

Irakaslea 2: Eta izen abizenak jarri behar diren tokian, zure kontrolean zergatik jartzen du Elene Ansola?

Ikaslea 9: Astakirten halakoa! Zure izena jarri beharrean, nire izena ere kopiatu duzu!

Kontalaria: Istorio asko bizi izan ditugu, eta alde batetik pena dugu eskola hau uzteko, baina beste istorio batzuk bizitzeko garaia heldu zaigu.

Iñaki Aldai